

## GOBERNU BATZARRA

2016. 11. 28

<b>Alkatea:</b>	<b>Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko azaroaren hogeita bederatzian, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko.</b>
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	<b>Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.</b>
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b>	<b>1.- Aurreko akta onartzea.</b>
<b>Nerea Letamendia Belloso</b>	
<b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	<b>2.- Presoen familientzako diru-laguntza banaketaren proposamena.</b>
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	
<b>Idazkaria:</b>	
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	<b>3.-Udal Lankidetzak- Udalaren 2016. urteko dirulaguntzak banatzeko proposamena.</b>
<b>Kontuhartzailea:</b>	
<b>Ainhoa Molinos Zubiaurre</b>	<b>4.- 38/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.</b>

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko azaroaren 21ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Presoen familientzako diru-laguntza banaketaren proposamena.**

2016ko irailaren 26an Gobernu Batzarrak onartu zituen Gipuzkoatik kanpo dauden presoak bisitatzen dituztenentzako dirulaguntzen banaketa egiteko irizpideak. Dirulaguntzak proportzionalak izango dira, alegia, Tolosatik presoak dauden kartzelen udalerrietara bitarteko km kopuruaren arabera.

Aurrekontua: 3.320 €.

Kilometroko: 3.320 € : 3.626,50 km = **0,915483 €**

Hori dela eta, Gobernu Batzar honek, Gizarte Politikako batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Ondoren aipatzen diren dirulaguntza hauek ematea:

1-TOLOSAtik- ALENÇON-era Normandia (FRANTZIA) <b><i>M<sup>a</sup> C I L- ri:</i></b> -Presoa: L I. I. L. (anaia). -Espetxea: Normandia (Alençon)	1.510,00 km x <b>0,915483</b> €/km.	1.382,30 €
2- TOLOSAtik- ALMERIA-ra <b><i>A G O- ri:</i></b> -Presoa: A. O. E. (bikotea) -Espetxea: Cáceres	1.980,30 km x <b>0,915483</b> €/km.	1.813,00 €
3- TOLOSAtik – - ARABA-ra <b><i>L G G- ri</i></b> -Presoa: F. G. G. (senarra) -Espetxea: BURGOS	136.20 km. x <b>0,915483</b> €/km.	124,70 €
GUZTIRA	3.626,50 km x <b>0,915483</b> /km.	3.320,00 €

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea interesdunei, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

### **3.- Udal Lankidetzaren 2016. urteko dirulaguntzak banatzeko proposamena.**

Gizarte Politikak eta Osasun Batzordeak aurkeztu du Udal Lankidetzari buruz egin behar diren diru laguntzen banaketa proposamena.

Aipatutako proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Tolosako udalerrian Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren arloan lan egiten duten taldeei diru laguntza hauek ematea:

<b>TALDEAK</b>	<b>2016.URTEKO PROPOSAMENA</b>
AECC- Minbiziaren Aurkako elkarte	1.000,00 €
AFAGI- Alzheimer duen gaixotasunaren familien elkarte.	300,00 €
AFESTTA- Syndrome de Tourette	490,00 €
AGIFES-Adimen gaixotasuna	300,00 €
ALTZOAN HAURRAREN GARAPENERAKO ELKARTEA	500,00 €
ARTUBI- Bedaioko 3. Adinekoen Elkarte	500,00 €
ASLEMEGI- Gipuzkoako Orno-muineko Kaltetuen Elkarte	490,00 €
BETI GAZTEAK- Amartzeko 3. Adinekoen Elkarte	1.000,00 €
BETI IKASTEN ELKARTEA	190,00 €
CARITAS PARROQUIAL	9.050,00 €
GURUTZE GORRIA (Gizarte Zerbitzuak+Osasuna)	1.000,00 €
DYA	1.000,00 €
ETXERAT	750,00 €
GAINDITZEN. Tolosa-Gohierriko Gorren Elkarte	1.320,00 €
Gipuzkoako SOS Arrazakeria	300,00 €
HARIZPE. Jubilatu eta Pentsionisten Elkarte	6.160,00 €
HIRUKIDE GAINBERRI	300,00 €
ITURRIZA ELKARTEA- Tolosaldeko Helduen Elkarte	6.500,00 €
IZAN FUNDAZIOA- GIZAKI HELBURUA	900,00 €
NAGUSILAN	600,00 €
Olarrain auzoko lagun artea, 3. adinekoen elkarte	500,00 €
ODOL EMAILEEN ELKARTEA	300,00 €
ORIXE BHI	300,00 €
SANTA MARIA PARROKIA (Osasun pastoraltza)	100,00 €
SAMANIEGO HLHI	500,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>34.350,00 €</b>

**BIGARRENA.-** Ezarrita dauden baldintzak betetzen dituelako, baina arazo desberdinengatik eskaera epez kanpo aurkeztu dutenei diru-laguntza hauek ematea.

LASKORAIN IKASTOLA KOOP.	1.200,00 €
CORPUS CHRISTI ELIZAKO P. SALUD	100,00 €
HIRUKIDE JESUITINAK	500,00 €

**HIRUGARRENA**.- Ezarrita dauden baldintzak ez betetzeagatik, honako elkarte hauei dirulaguntza ukatzea:

ARNASA. Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren  
Elkartea.  
ARRATS eLKARTEA  
ATECE-GIPUZKOA Elkarte  
BANCO DE ALIMENTOS DE GIPUZKOA Elkarte

**LAUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea taldeei, Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

**7.-38/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **38/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **177.934,48 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA**.- **38/2016** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Jose Luis Unanue Ugalde**